

# II. Ikuspuntu teoriko eta soziologikoa

## Kronika

### 1. Michele Taruffo: jurisdikzioaren eta Justizia administrazioaren arteko harremanak

Justizia administrazioaren deszentralizazioaren gaia arrotza egiten zaio Zuzenbide prozesaleko aditu honi. Baina gaia, berez, ez da derrigorrean era isolatu batean aztertu behar. Izan ere, deszentralizazioarena bezain arrotz egiten zaizkion beste beste gai edo fenomeno batzurekin du zerikusia, alegia, globalizazio eta gertutasunarekin. Beraz, deszentralizazioa globalizazioaren ikuspegitik aztertzen du Taruffo-k lehenbizikoz.

Globalizazio-arazoa ez da ekonomiaren kontu hutsa, fenomeno kulturala ere bada, eta horren heinean prozesalistak ezin die muzin egin. Egia da badirela hainbat gertakizun eta joera ekonomiko Nazio-Estatutik kontrolatzen ez direnak edo ihes egiten diotenak. Gizarte ezberdinetan giza-arazo berri asko ari dira hedatzen, kulturantzaren eta nazioarteko (internazional), nazio-gaineko (supranazional) edo nazio-zeharreko (transnazional) fenomeno ekonomikoen edo juridikoen eraginez, eta kezka berrientzako erantzuna lurralde txikien mailan aurkitzen da askotan, Nazio-Estatuak ez duelako behar bezala erantzuten edo ezin duelako oso konplexu eta geldoa den araugintza prozesu baten arabera erantzun: horrela agertzen dira udal-mailako, eskualdeko, edo lurraldeko soluzioak. Lokalismoa (gertutasuna) eta globalizazioa, *yin* eta *yan* bezala ulertzen dira beraz. Eta bi joera horiek agerian uzten dute Nazio-Estatuko krisia: ez globalizazioak, ezta gertutasunak ere, ezin dute Nazio-Estatutasuna besarkatu.

Arlo juridikoan ere adierazten dira bi fenomeno hauek: Nazioarteko Zuzenbidea, Europar Komunitateen Zuzenbidea, Europar Giza Eskubideen Ituneko Zuzenbidea, beste nazioarteko itunak (arlo penalekoak esate baterako), Kontsumitzaileen Zuzenbidea, lan harremanetako hitzarmenak, familia arazo-etako tartekaritza, epaile berezien figurak, etab. Zuzenbidezko prozedurak kasu batzuetan estatu-gainetik garatzen dira, eta beste kasutan estatu-aparatuetatik at: prozeduraren sakabanatzea sortzen da. Errealitate juridikoa ez da gehiago Nazio-Estatuko kontzeptiotik bakarrik aztertzen ahal. Fenomeno hauen artean koka liteke deszentralizazioaren edo izaki autonomiadunen Justizia administrazioa.

Justizia autonomoak bost adierazpen mailatan azter litezke. Alde batetik, Justizia administrazioaren egitura bera aurkitzen da, eta hau antolakuntzaren eta finantziarioaren aldetik ikusten da. Autonomiadun lurraldeetan Justizia administrazio berezi bat egon daiteke. Bigarrenik, sistema propioa edukitzean, epaileak aukeratzeko eta karreraren promozionatu eta prestatzeko adieraz daiteke autonomia. Hirugarrenik, prozedurazko Zuzenbide berezia izatea esan nahi izan dezake Justizia autonomoak. Laugarren adierazpena, Zuzenbide material berezia edukitzea da, eta bostgarren adierazpena Zuzenbidearen aplikazio prozesuan interpretazio irizpide edo neurkin bereziak izatea izango litzateke, bai Zuzenbide materialaren aplikazioan dela zuzenbide propioa, dela zuzenbide komuna, eta bai gertakariaren kalifikazioan edo frogatze prozesuan (adibidez Zuzenbide iturri bereziak, precedentearen eragina).

Zuzenbidezko berezitasun edo uniformisten lengoia erabiliaz bitxikeriak aurki litezke bai edukiaren aldetik eta baita prozeduraren aldetik ere, baina, egia esateko, autonomiaren adierazpenik garrantzitsuenak beste elementuekin datoz agian: epaileak prestatu eta aukeratzeko sistema propioarekin eta hauek erabiliko dituzten interpretazio eta Zuzenbidea bera ulertzeko irizpideekin. Izan ere, herri batek bere izenean Justizia banatzeko aukeratzeko dituen epaileek zein baloreei eusten dieten galdetu behar da: aniztasuna *versus* balore nagusiak, berezitasuna *versus* uniformizazioa, aldaketa *versus* egonkortasun eta tradizioa,



banakakotasuna *versus* orokortasuna. Nazio-Estatua figurarekin batera balore batzuk nagusitu izan dira mendebaldeko Zuzenbide-kulturan (berdintasuna, neutraltasuna, Zuzenbide komuna, osotasuna, egonkortasuna, orokortasuna, etab.). Orain suertatzen ari den paradigma aldaketarekin alegia, globalizazioarekin ez da seriooki proposatzen balore hauek alderatzea, baina kontzepzio malgu edo moldagarriak agertzen dira, eta Justizia administrazioa aldaketa hauen lekukoa ere bada. Balore aldaketa gelditzen edo ukatzen saiatzen bada, Nazio-Estatuarekin batera zaharkituko da Justizia-administrazioa, zerraldo gisa ikusia izango delarik: hotz, arrotz eta urruneko.

## 2. Jacques Commaille: Justiziaren lurraldeak, hurbilketa soziologikoa

Commaille irakaslea, jurisdikzio mapa berria ekarriko duen Justiziaren lurraldetze-politikaren inguruan ari da ikertzen. Bere ikerketa soziologiatik egiten duelarik, topatzen duen oztopo nagusia lanbide juridikoen geldokeria edo aldatzeko asmorik eza da. Benetan falta dena, Justizia-lanbideek beren zeregina hiritarrentzako zerbitzu publiko gisa ulertzea da. Hiritarrentzako izango bada, printzipioz hiritarrak inplikatu behar dira zerbitzu horretan nolabait, eta hori da tinkatuta dauden lanbideetan ulertzen ez dena.

Mugigabezikeria edo “inmobilismoa” azaldu nahiean, Commaillek hiru faktore aipatu zituen: (1) botere politikoak Justiziarri eta arlo politikoari buruz duen kontzepzioa, alegia, Justizia Estatuko boterearen adierazpen bezala ulertzen du, bere sinbolismo guztiarekin, eta ez “hiritarren zerbitzuan”, lekuko gertutasuna eskatuko lukeen Justizia gisa, lurraldeko edo eskualdeko erkidego baten nortasuna aintzakotzat jo zezakeena; (2) alderdi kulturala, non tradizioak eta lurralde- edo leku-nortasunak topo egiten duten, eta (3) alderdi instituzionala, non lanbide juridikoen interesak, baloreak eta nortasunak azaltzen diren: kontsakratu diren abokatuek ez dute jurisdikzio lurraldea zatitzerik edo beste lurralde zabalago batean sartzerik nahi, beti ere merkatua galtzeko arriskua dagoelako; magistratuek, aldiz, nahiago dute hiri nagusietako jurisdikzio handia eta karrera zentralista.

Gaur egungo aldaketa soziala, globalizazioaren testuinguruan sortzen diren kezka berriekin, Estatuko zatiketaz eta lurralde arazoaz mintzo da. Estatuazpiko lurralde batzuk Estatutik askatzen dira; ez hainbeste dinamika politikoagatik, baizik eta aldaketa sozialaren poderioz. Adibidez, hiri nagusietako auzoek beren jurisdikzio propioa eskatzen dute, bertako koiuntura soziologikoa horrela eskatzen duelako.

Eskaera berriei erantzuteko, jurisdikzio maparen erreformarako mugimendua sortu da Frantzia (*réforme de la carte judiciaire*). Leku edo kokagune berriak azaltzen dira Justizia egiteko: antenak, etxeak, leihatilak, buzoiak. Justizia egiteko bide berriak ere agertzen dira; adibidez, tartekaritza, familia gaietarako konponbide berriak. Eragile sozialek protagonismo berria hartzen dute: kontsumitzaileen elkarteek, esate baterako. Epailearengana jotzea era berri batean ulertzen da: soziologikoki epailearengandik laguntza jasotzea da kontua, eta ez formalki Justizia Jauregi batean ordezkari formal batekin eta zitazioa dela medio “pertsonatzea”. Dagoen egoera berrian, Justizia administrazioak ez du epaitegi batean gertatzen denaren berririk, eta horrela, botere zentralak zeukan kontrol zorrotza galduz doa. Berdina jazotzen da Zuzenbide Komunitarioa aplikatzen denean, alegia, ez bada helegiterik aurkezten, auzi batzuk Zuzenbide horren arabera pikatuko dira, eta ez dago horren ezagutzarik. Justizia, poliki-poliki, errealitate sozial berriei egokitzen zaie eta horren kontzepzio instituzional batetik kontzepzio sozial berri batera pasatzen ari gara.

## 3. Rafael Jimenez Asensio: Justizia administrazioa deszentralizatzeko aukerak eta horren azterketa konstituzionala

Jimenez Asensio irakasleak ere Botere judizialaren erresistentziak aurkitzen ditu, oraingoan Espainian eratu den Autonomien Estatuaren egitura berrira egokitzeko erresistentziak. Inmobilismo mota honen defentsan “jurisdikzio batasuna” aipatzen da aitzakia gisa, Justizia Espainian Erregearen izenean ematen baita gorputz bakarra osatzen duten epaileen eskutik.

Espainiar Estatuko eredia bera, Justiziaren gaian, nahiko anbigua da. Konstituzioak Justiziarri buruz duen Atalburuan ez dira Autonomia Erkidegoak aipatzen. Jimenez Asensiok, beraz, doktrina eta jurisprudentzia konstituzionalaren eskutik proposatzen du jurisdikzio-funtzioa (Justizia administrazioa) eta Justizia administrazioaren kudeaketa bereiztea. Konstituzioak ez du erabakitzen Botere judiziala lurraldeko ote daitekeen, bide hura Lege Organikoaren bidez itxi delarik.



Edozein modutan, eta deszentralizatzearen arazoaz gain, Justizia administrazioak beste arazorik ere badu: epaile-bulegoa kudeatzeko irizpideak zaharrituta egotea, modernizatzeko teknikak nahiz aldaketak sartzeko oso zaila eta oztopotua izatea. Gizarte zibilak ez du Justizia administrazioan parterik hartzen — Botere Judizialaren Kontseilu Orokorra kenduta, eta hor alderdi politikoen eskutik—, batez ere Autonomia Erkidegoaren mailan. Botere judizialaren beraren antolakuntza aldatu beharko litzateke. Modernizatzeko neurriak, deszentralizatzeko neurriekin batera, osagarri gisa etorriko lirateke. Adibidez: (1) Auzitegi Gorenak 79 kide ditu! Horren ondorioz, bere funtzionamendua geldoa da oso eta jurisprudentzia ezberdina eta bateragaitzak sortzen dira. Zibil- eta penal-arloetan protagonismo gehiegi hartu du Gorenak. Erkidegoetako Justizia Auzitegiak ez daude benetan Kontseilu Orokorrekin koordinatuta, eta tartean dagoen beste erakundeak, alegia, Justizia Ministerioak, legegintza politikara mugatu beharko luke bere funtzioa; (2) epaile bilakatzeko sistema errotik aldatu beharra: Autonomia Erkidegoetako institutuak, eta memoriaren garrantzia nolabait murriztea, arrazonamendurako gaitasunaren, idazteko teknikaren, hizkuntzen ezagutzen —bertako hizkuntza ofiziala barne—, informatikako oinarrizko ezagutzaren edo heldutasun psikikoaren mesedetan. Gaur egungo epaile-eredua joan den mendeko paradigmatik dator, memoria gorenaren da, eta, hau lantzeko, Madrilen kokatzen diren oposaketak prestatzeko sistemetan gehiegikeriarik ere sortu da. (3) Epaileen etengabeko prestakuntza sistemak ere aldatu behar dira, prestakuntza praktikoa areagotuz, kudeaketa teknikak erakutsiaz, ordezko epaileak aukeratzean ere praktikari garrantzi gehiago eman beharko litzaiokkeen bezala. (4) Nazio-gorputzen abusua dago. Horren ordez, kudeaketa teknikak gehiago landu beharko lirateke.

#### 4. Amaierako gogoeta

Jardunaldien bigarren zatiko interbentzioak entzun eta gero, ideia berri bat agertu zen Justizia eta Burujabetzari buruzko edozein egitasmorako: alderdi soziologikoa eta teorikoa zaintzearen beharra. Izan ere, Justizia autonomikoa ala propioa ukan nahi izatea, ikuspegi juridiko-politiko batetik zilegi den bezala, ez da baztertu behar Justizia horrek zein eredu jarraituko duen. Bigarren zati honetan Justiziaren inguruan ematen ari diren joera eta aldaketa soziologikoak aztertu dira, eta, Espainiaren kasuan bederen, Justizia administrazioa Autonomien Estatura egokitu beharrarekin batera, huraxe bezain larria den beste behar bat dago, alegia, Justizia globalizazioaren testuinguruan modernizatzea. Deszentralizatzeko ez du modernizatzeko hura ekarriko, baina bi erreformak batera egiten badira, hiritarraren mesederako izanen da: hizkuntza ofizial guztiak aintzakotzat hartzea, hiritarren parte-hartzea bultzatzea, epaileak ulergarriagoak eta gertuagokoak bilakatzeko, Justizia era azkar batean administratzea, sortzen diren arazo eta kezka sozial berriei erantzuteko, edo gutxienez ulertzeko, moduko epailegoa izatea, etab.

Kronikaren egilea: Joxerramon BENGOTXEA CABALLERO  
Zuzenbidearen Filosofiako irakaslea  
Euskal Herriko Unibertsitatea



# Elkarrizketa

Michele TARUFFO

Zuzenbide Prozesaleko katedraduna  
Paviako Unibertsitatea (Italia)



## 1.

### **Zeintzuk dira Justizia Administrazioak Italian dauzkan arazo nagusiak?**

Arazo nagusia, ziurdanik, aspaldidanik daukagun bera izango da: motelegia dela, bai hiritarrentzat eta bai epaileentzat. Horregatik, prozedurak bizkortzeko asmoz, legegileak batik bat Zuzenbide Zibila erreformatzen saiatu dira azken hamarkadatan —1990ean lehendabizi eta 1995ean gero—, baina halere egoerak ez du hobera egin. Beraz, oraindik ere motel-motela da gure Justizia Zibila. Eta beste hainbeste Penalarri dagokionez, izan ere, 1998ko Prozedura Penal berriak aldaketa batzuk sartu nahi izan zituen arren, gauzak ez dira aldatu.

Egoera hobetzeko zer egin aztertzen ari gara. Nik uste dut sistema bera aldatu beharko genukeela, horrelako erreformekin ezin izango baitugu aurrera egin. Eredu berriak hartu eta goitik behera aldatu beharko genuke prozedura zibil guztia. Baina hori oso zaila da, legelari eta epaileak ez daudelako hori egitearen alde. Epaileak, nolatan ere, ez dira aldaketekiko hain itxiak, sistemaren sinesgarritasuna egunetik egunera okerrera doala ikusten dute-eta, baina abokatu gehienek, ordea, Justiziaren moteltasunari esker egiten dute dirua. Aldaketen aurka daude, nahiz eta beraiek ez aitortu.

Jende asko gelditzen da Justiziara jo gabe, baina ez dirurik ez daukalako. Beste bide batzuetara jotzen du: arbitrajea, mediazioa... ez gehiegitan halere. Normalean, beren eskubideak defendatu behar dituztenek ez dute Auzitegietara jotzen, ez dutelako denbora luzean itxaroten eta dirua xahutzen aritu nahi. Tresneria osoaren funtzionamendu kaskarraren ondorio da hori guztia.

Epaileen prestakuntzari dagokionez, arazoa da burokrazia oso sartuta dagoela gure sisteman: epaileak oso gazte direla hasten dira ikasten, gero hautaketa burokratiko bat gainditu behar dute, izendatutakoan kontrolpean egoten dira... Hala ere, arazo hau ez da batere garrantzitsua Justiziaren berandutzarekin alderatuta.

## 2.

### **Nola jokatu beharko luke Europar Batasunak aniztasunaren aurrean? Aski al da prozedurak koordinatzea, ala beste eremuetara ere zabaldu beharko litzateke?**

Egin dira prozedura zibileko zati batzuk uniformizatzeko zenbait saiakera, baina ez dute aurrera egin. Nik uste dut Europaren baitan egin dezakegun gauzarik onena harmonizatu edo koordinatzea dela, baina uniformizazioarena ez zait biderik egokiena iruditzen. Eta are gutxiago pentsatu behar dugu Botere Judiziala bateratzeaz, bakoitzak tradizio historiko desberdina dauka-eta. Horrek ez du esan nahi ezinezkoa denik; agian posible izango da printzipio komun orokorren arloan.

## 3.

### **Zer irizten duzu multinazionalak daukaten eraginaz?**

Multinazionalak ikaragarriko boterea daukate; eragin handia daukate nazioazgandiko kontratuen Zuzenbidean. Merkataritzako Nazioarteko Arbitrajea jotzen dute beren gatazkak konpontzeko, eta nazioarteko arbitroak dozena batzuk besterik ez direnez, gutxi horiek botere ikaragarria daukate eskuetan.



## 4.

### **Eta zer diozu teknologia berriez?**

Interneten kasua datorkit burura, gehien erabiltzen dena delako. Badira hor zenbait zailtasun, transakzioak adibidez. Baina ez dugu pentsatu behar bide berri horiek (e-mail, internet, telehitzaldiak...) gatazkak sortzen dituztenik; hizkuntza desberdinak dira nire ustez. Idatziz dauden paperak erabiltzea erabat desberdina da. Teknologia berriak erabiltzeak ekar ditzakeen aldaketetan ari naiz pentsatzen, faxean izan ezik, hori idatziz dago-eta. Ziurrenik hori izango da etorkizuneko bidea, baina edonola ere oraingoz hasierako arazokak besterik ez ditugu ezagutzen. Komunikabide handi bat bihurtuko delakoan nago, nahiz eta esperientzia asko falta zaigun oraindik.

## 5.

### **Prozedurazko Zuzenbidean aditua zara, eta gertutik ezagutzen dituzu sistema kontinentala nahiz amerikarra. Zeintzuk dira *Common Law* eta Zuzenbide zibileko sistemen arteko desberdintasun nagusiak?**

Badira batzuk. Hasteko, gaur egun ezin da *Common Law*-ko sistemez orokorki hitz egin, guztiz desberdinak direlako sistema ingelesa eta amerikarra. Ingelesek Prozedura Zibilari buruzko arau berriak eman zituzten 1999an. Egungo sistema ingeles eta amerikarrak apenas daukate elkarren antzik. Eta sistema europar batzuk amerikarra kopia nahiean dabilta. Oso konplexua da. Ez dut uste bi sistemen artean antzekotasunik dagoenik; alderantziz, oso alde handia dagoela iruditzen zait. Eta mundu zabalera ere begiratu beharko genuke: teorian Zuzenbide zibilak direnak oso azkar ari dira garatzen. Egoera narrats samarra da orain bertan; sistema handiak desagertzen ari dira, ez dute balio, baina ez daukagu sailkapena egiteko sistema berririk. Dagoeneko balio ez duten sistema zaharrak oso azkar ari dira aldatzen. Baina goizegi da sistema berriren bat ote datorkigun jakiteko.

## 6.

### **Nola ikusten du italiar batek epaile amerikarren aktibismoa?**

Nolabaiteko bateratasuna ikusten du, ez ordea prozeduren araudian. Azken hamarkadatan lehen baino askoz ere aktibistagoak dira epaile italiarrak —eta, oro har, europarrak—, pasibo samarrak baitziren epaile amerikarrak, Konstituzioarekin lotutako gaietan izan ezik. Beraz, nolabaiteko bateratasuna dago epailearen idealaren inguruan: iraganean baino askoz ere aktiboagoa da, eta beste modu berri batzuetan interpretatzen du Zuzenbidea. Lege sistemek antza handiagoa daukate interpretazioari dagokionez, eta epaileek askatasun eta diskrezionaltasun handiagoa daukate (Zuzenbide sustantiboaren egiturak aldatzen ari dira, Zuzenbidea bera gero eta zehazgabeagoa da, hitz orokorrak erabiltzen ditu...).

## 7.

### **Atlantikoko bi aldeetako epaileak beren erabakiak oinarritzera behartzen al ditu horrek?**

Europar, zalantzarik gabe bai. Estatu Batzuetan nahiko normala da epaileek epaia oinarritzeko beren iritzia ematea, baina Auzitegi Gorenetan bakarrik, ez Lehenengo Instantzian. Presiopean daude. Halere, erakundearen arteko desberdintasunak daude hor. Baina ez dago batere argi zer den oinarritu behar dutena. Arazo nagusia diskrezionaltasuna justifikatzea da. Epai bateko puntu nagusiak justifikatzeko iritzi sustantiboak eman behar dira, ez itxurazkoak, eta zaila da hori. Epaile frantsesak, esaterako, beren iritzia ematera ohituta daude, baina ez dituzte epaiak justifikatzen. Desberdindu egin beharko liriteke beren iritzien itxura eta edukia.



## 8.

### **Globalizazioaren eskutik mugez gaindiko arazo berriak sortu dira. Non kokatu beharko litzateke teorizatzaile italiarrek "garantismo" deitzen dutena?**

Zorionez, eta globalizazio eta uniformizazioaren ondorioz, ia leku guztietan aurki daiteke funtsezko bermeen inguruko mugimendu hau. Italia eta Alemaniako gerraosteko Konstituzioekin jaio zen, eta hasieran bermeen aldekoa zena orokortu egin da gerora. Gaur egun ia ez dago bermerik gabeko sistemarik. Zenbateko indarra daukaten beste kontu bat da, baina printzipio legal orokorrak behintzat uniformeak dira mundu osoan. Arazoa da berme horiek nola indartu. Hala ere, guztiek onartzen dituzten printzipioak finkatzen has gintezke, eta hortik aurrera horiek indartzen saiatu.

Elkarrizketatzailea: Joxerramon Bengoetxea  
Itzultzailea: Koro Garmendia

Jacques COMMAILLE

Politika Publikoaren Azterketa Taldeko Kidea (Frantzia)



## 1.

### **Oro har, europarrei ez zaie Justiziaren Administrazioaren funtzionamendua gustatzen. Zer esan diezagukezu Frantziako egoeraz? Zeintzuk dira bertako arazorik larrienak?**

Duela gutxi, jendeak Justiziaren Administrazioaren funtzionamenduari buruz zer pentsatzen duen jakiteko inkesta bat egin da Frantzian, eta, ongi gogoratzen baldin badut behintzat, Justiziaren moteltasuna eta hiritarren kezkekiko urruntasuna ziren gehien kritikaturako alderdiak. Justizia hiritarrendik oso urrun dago, arlo penalean batik bat, ez Polizia, ez Justizia ez direlako jendearen kezkez arduratzen. Hiritarrak, oro har, ez dira Justiziarekin fidatzen, eta, analisten esanetan, horrek esan nahi du botere politikoarekin ere ez direla fidatzen. Justiziarekin, botere politikoarekin bezain gutxi fidatzen dira.

## 2.

### **Konfidantza gabezia hori ustelkeriarekin dago lotuta, ala orokorragoa da?**

Orokorrean ez dute epaileen zintzotasuna auzitan jartzen, ez behintzat politikariena baino gehiago. Azkenaldiko ustelkeria politikoko kasuen aurrean, kezka sortu duena epaileek botere politikoarekiko daukaten menpekotasuna izan da. Hiritarren ustez Justizia ez da botere politikoarekiko erabat independentea, baina hala ere ez gara independentzia hori lortu ahal izateko erreformak egiteko gai.

## 3.

### **Justiziaren Administrazioak zerbitzu publikoa izan beharko lukeela diozu.**

Horrek esan nahi dudana da Justizia ez dela sektore publikoak dauzkan gainerako funtzioen aldean berezia. Justiziak ere kontuak eman behar dizkie hiritarrei, hiritarren zerbitzura dago. Moteltasuna, urruntasuna, auziperatuei ematen zaien tratua, etab., beste zerbitzu publikoetan bezalaxe aztertu beharko lirate-



ke. Justizia zerbitzu publiko izateak esan nahi du hiritarrak auzitegietan hobeto artatu behar direla, beren eskabideei azkarrago erantzun behar zaiela. Justiziaren funtzionamendua arrazionalizatu behar da, beste edozein zerbitzu publikoren funtzionamendua modernizatzen denean bezala.

## 4.

### **Hiritarrek Justiziaren Administrazioari leporatzen dioten urruntasun horrek ba al dauka hizkuntza juridikoarekin zerikusirik?**

Baita ere. Hori da hain zuzen ere Justiziari egiten zaion kritiketako bat, hiritarrek ez baitute Justiziaren Administrazioiko prozeduretan erabiltzen den hizkuntza juridikoa ulertzen. Beste administrazioetan ez da horrelakorik gertatzen, eta horregatik salbuespenezkoa dela esan daiteke —halere ez dut zentzu txarrean esaten—, baina Justiziaren Administrazioarentzat onuragarria izan daiteke.

## 5.

### **Justiziaren Administrazioaren funtzionamendua hobetzeko bi irtenbide daudela diozu: instituzionala eta soziala. Zertan datza bakoitza?**

Frantziako Justiziaren lurraldetasuna aldatzearen, Karta Judiziala erreformatzeko prestatu den txosten batean jasotzen diren hitzak dira; irtenbide instituzional eta sozialaren arteko dikotomia azpimarratzen du. *Instituzionalak* esan nahi du Justiziaren egiteko nagusia gizartearen zaindari izatea dela, eta funtzio erreal batez gain sinbolikoa ere badaukala; alegia, gizartearen printzipioak gogorarazteko dagoela nolabait. Egia da “instituzio” hitza gogor samarra dela, baina berebiziko garrantzia dauka. Eredu honek Justiziaren zeregin klasikoa azpimarratu nahi du; hau da, epaileen egiteko nagusia Zuzenbidea betearaztea dela, “Legearen ahoa” direla, Montesquieu-k esan bezala. Kontzepzio horren arabera egin behar da erreforma, Justizia erakunde gisa berrezar dadin.

Ikuspegi *sozialaren* arabera, Justiziak hiritarrendik gertu egon nahi du, gizartean txertatuta, arazoak dauden lekuan, eta hiritarren esperientzia sozialez kezkatzen da. Leku bakoitzean ezberdina izango da, bertako arazo araberakoa, baina funtsean kontzepzio zahar bati heltzen dio, hiritarrei lotuta dagoen Justiziari. Frantses Iraultzako kontzepzioa da, hain zuzen ere: hiritarrek Justizia errespetatu, onartu eta zuzenean hartuko dute parte gizartearen onura orokorra sortzen. Berez kontzepzio zaharra da, baina eguneratu egin da. Adibide bat: orain dela gutxi Frantziako udalen politikari buruzko txosten bat kaleratu da, eta 45.000-50.000 biztanleko hiri batzuetan auzitegirik ez dagoela ikusi da.

Orokorrean kontserbadoreak irtenbide instituzionalaren alde daude, Justizia erakunde bezala berritu nahi dutelako, eta aurrerakoiek, aldiz, funtzio soziala azpimarratzen dute.

Justizia zerbitzu publikoa baldin bada, hiritarrari auzitegietara jotzeko erraztasun guztiak eman behar zaizkio. Batzuek esaten dute hiritarrek eskolara joateko daukaten bezala eduki behar dutela Justiziara jotzeko eskubidea. Justiziara jotzeko eskubidea izateak ez du esan nahi auzitegira joateko derrigorrean 100 kilometro egin behar direnik, baizik eta, zerbitzu publikoa izanik, eskolara bezala joan gaitezkeela Auzitegira.

## 6.

### **Familiaren politika frantsesaren ikerle zaitugu. Azken urte hauetan ugaritu egin dira familia osatzeko moduak. Zein arazorekin egin du topo Zuzenbideak famili berriak arautzerakoan?**

Bi arazo nagusirekin: batetik, familia osatzeko modu desberdinak aintzat hartzeko orduan noraino jo dezakeen ikustea; eta bestetik, nola jaso behar dituen norbanakoen bizitza pribatua antolatzeko modu berriak. Bigarren honi buruz, sarritan adibide hau ipintzen diet nire ikasleei. Hasiera batean txantxetako dirudi, baina oso serio eta argigarria da. Emakume batek —demagun Duran abizena duela— ohaidetza aintzatets



zekiotela eskatu zuen, baina epaiak esan zuen “Dupont jaunarekin harreman intimoak gau batean eduki izateak ez ziola egoera hori lortzeko eskubiderik ematen”. Berehala galdera hauxe datorkigu burura: noiz sortzen da orduan Zuzenbidearentzat ohaidetza, edo bikote ezkongabe baten elkarteak? Horra hor Zuzenbideak familiaren eraketa eta funtzionamendu moduen aurrean daukan arazoa. Nola jokatu behar du? Eta noraino jo dezake legean norbanakoen jokabideak aintzatesterakoan?

Frantzian eztabaida biziak piztu dira bikote ezkongabeen egoera —sexu berekoak barne— aintzatesten duen PACS<sup>1</sup> en inguruan. Zuzenbidean ez dago batere garbi mugak non dauden eta ohiturak zenbateraino alda daitezkeen.

Erakunde politikoez gizarte osoaren zerbitzurako daukaten tresna da Zuzenbidea. Lehenengo arazoa da nola kalifikatu behar diren juridikoki ezohikoak diren jokaerak, eta bigarrena, Zuzenbideak bizitza pribatua antolatzeko modu guztiak aintzatesten behar ote dituen. Oso gai eztabaidagarriak dira, ia filosofikoak; alegia: mugarik ezarri behar al du Zuzenbideak?

## 7.

### **Nola definituko zenuke familia? Zein ondasun juridiko babesten du?**

Gizarteentzat gero eta zailagoa da familiaren definizioa ematea. Egoera berriak ugaritzen ari direnez, familiari ematen zaion definizioa gero eta lausoagoa da. Hasteko, ez dago familiari buruz hitz egiterik, familiei buruz baizik. Gizarteak berak ez dakienez nola definitu, norbanakoen jokaerak dauzkaten ondorioetan murgiltzen da. Botere publikoek haurrengan ipintzen dute orain arreta, aldaketa handiak sartzen ari dira araudietan haurrak babestearren, eta nik uste dut Haurren Eskubideen Nazioarteko Itunak zerikusirik handia daukala. Ez dakigu oso ondo familia zer den, baina bai haurra zer den.

Nik uste dut aurrerantzean berdintasunaren inguruan sortuko dela arazoa. Anthony GIDDENSEk dio “bizitza pertsonala demokratizatzen” dutela familiaren aldaketek. Eta Claude MARTINEkin batera idatzi dudana liburua batean, *Les enjeux politiques de la famille*, adierazi dut jende guztiak ez dauzkala modernizazio horretan sartzeko adina baliabide. Batzuk besteak baino ahulagoak dira; emakume batzuk, esaterako, ohi-turak aldatu egin direnez gero, bakarrik, haurrekin eta lanik gabe daude. Oraindik ez dugu gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortu, eta modernizazioa familia mailan arriskutsuagoa da emakumeentzat gizonentzat baino. Etorkizunean, berdintasun printzipioa sustatzeko neurri juridiko berriak hartu beharko ditu Zuzenbideak, ahulena babesteko; emakume eta haurrak, adibidez.

## 8.

### **Zer iruditzen zaizu Frantziako Parlamentuan gizon adina emakume egoteko emandako Legea? Zein irakurketa egin daiteke soziologia juridikoaren ikuspegitik?**

Zure baimenarekin, parekotasunaren kontu honetatik PACSen kasura pasa nahiko nuke, arauak sortzeko prozedurari dagokionez funtsean bien inguruan hausnarketa berdintsuak egin daitezkeelako. Ni ez naiz baikorregia horrelako arauen aurrean, nahiz eta PACS honek nolabaiteko aurrerapen edo liberalizazioa eman nahi izan. Amorrua ematen didana da alderdi politikoez bizitza pribatuari dagozkion kontuak eztaba- da politikoak pizteko erabiltzea.

Berdintasuna lortzeko asmoarekin hartutako neurriak onak direla iruditzen zait, emakumeek politikan daukaten presentzia txiki hori areagotzeko zenbait gauza inposatu egin behar direlako. Baina atzean dauden helburuak politikoak dira batez ere, eta, beraz, hautesleen aurrean ematen den irudia da gehien kezkatzen dituen. Orduan, helburua izan beharko lukeena bitarteko bat besterik ez da bihurtzen.

Elkarrizketatzailea: Itziar Alkorta  
Itzultzailea: Koro Garmendia

1. PACS: *Pacte civil de solidarité* (Elkartasunezko itun zibila).



Rafael JIMÉNEZ ASENSIO

Bartzelonako Eskola Judizialeko irakaslea



## 1.

**Konstituzio espainiarreko VI. Titulua irakurrita, ez du Autonomien Estaturik dagoenik ematen. Eskumen bakarraren dogma azaltzen da. Zergatik da zure ustez Konstituzioa hain zehazgabea Justiziaren, Justizia Administrazioaren eta Estatu autonomikoaren arteko harremanen inguruan? Egon al zen Konstituzioaren egileen aldetik —alderdi abertzaleak barne— gai horrekiko inolako sentiberatasunik?**

Egia esan, ez dut uste Konstituzioaren egileek egitura lurraldetarraren eta Botere Judizialaren arteko harremanen arazoan pentsatu zutenik. Kontuan izan behar da 1978an eredia ez zegoela inondik inora finkatuta. Lehenengo Estatutuak onartu ahala joan zen zehazten, eta, urte batzuk geroago, Botere Judizialaren Lege Organikoa (BJLO) indarrean sartzean.

## 2.

**Zure ustez, 1978ko Konstituzioak ez du Botere Judizialaren antolaketa lurraldetarrari eta Justizia Administrazioari buruzko aurreiritzirik ematen, baizik eta BJLOk, Konstituzioko 122. artikularen aginduz. Botere Exekutiboa Justizia Administrazioa erreformatuko duen Estatu Itun bat aurkeztear dagoela, nahikoa al litzateke BJLO erreformatzea funtzio jurisdikzionala deszentralizatzeko, hots, autonomizatu edo lurraldetzeko?**

Nire ustez, Botere Judiziala BJLO erreformatuz “autonomiza” daiteke nagusiki, Lege hori baita Botere Judizialaren eta Estatu autonomikoaren arteko harremanen eredia finkatzen duen tresna nagusia. Hala eta guztiz ere, hori ez da oztopo Botere Judiziala eta Justizia Administrazioa lurraldetzeko beste “irtenbide” konstituzional batzuk bilatzeko; hala nola, 150. artikuluko 1. eta 2. ataletatik joz, edota Konstituzioa nahiz Estatutua erreformatuz. Nolanahi ere, bide horietara jo beharrik gabe, aurrerapen handiak egin daitezke Botere Judiziala lurraldetzeko; hau da, Botere Judizialaren eta Justizia Administrazioaren egitura Estatu autonomikora egokitzeke.

## 3.

**Non egin beharko litzateke birregituraketa hori: Estatu osoan ala autonomia erkidego bakan batzuetan?**

Justizia deszentralizatzeko irtenbideek ezin dute asimetrikoak izan, babes judizial eraginkorraren oinarritzko eskubidea kaltetzeko arriskua legokeelako. Gai batzuek hainbat lurraldetan trataera berezia jasotzea beste kontu bat da; esaterako, gazteleraz gain beste hizkuntza ofizial bat daukaten autonomia erkidegoen kasuan.

## 4.

**Zein kasu konparatu iruditzen zaizu eredutzat hartzeko modukoa? Ba al da bere Justizia Administrazioa lurraldetu duen Estatu ez federalik?**

Esperientzia zehatzak adina Estatu federal eredu daude. Eszeptikoa naiz esperientzia konparatuak inportatzeari dagokionez; hobe da gure kasua ongi aztertu eta irtenbide zehatzak proposatzea.



## 5.

**Auzitegi Konstituzionalaren apirilaren 13ko 105/2000 Epaia buruz idatzi duzun iruzkina irakurri dut<sup>1</sup>. Epaia horrek, Partidu Popularrak BJLO erreformatzearen aurka aurkeztutako inkonstituzionaltasun helegitea ebatzi du, autonomia erkidegoen “Justizia Administrazioaren administrazio” eskuduntzen inguruan. Epaia honen bidez, Auzitegi Konstituzionalak zehaztu egin du zein den Botere Judizialaren eremu instituzionala, eta zeintzuk diren klausula subrogatorioaren bidez autonomia erkidegoei transferitu ezin zaizkien erreserba konstituzionalak. Zertan datza muin instituzional hori?**

Ideia nagusia hauxe izango litzateke: BJLO, Justizia Administrazioaren eremua Autonomia Estatutuen alde deszentralizatzeko maila zehazten duen araua da. Nolanahi ere, garbi daude deszentralizazio horren mugak: batetik, ezin du Justizia Administrazioaren muina zuzenean ukitu, eta bestetik, Auzitegi Konstituzionalak esan du exekuzioaren inguruko eskuduntzei bakarrik dagokiela eragorpen hori —ahalmen erregelamendugilea tartean dela—, baina legegintzarako eskuduntzak kanpo geldituko lirateke. Gainera, posible da legegile organikoak klausula subrogatorioen eraginkortasuna bertan behera uztea, BJKOri ahalmen batzuk esleituz.

105/2000 Epaia, Auzitegi Konstituzionalaren 56/1990 Epaieko doktrina jasotzen du espreski. Klausula subrogatorioek, eta klausulok Gobernuari egiten dizkieten aipamen espresuek, argi uzten dute autonomia erkidegoek ezin dutela gaiari buruzko eskuduntza legegilerik eskuratu. Hortik ondorioztatzen da autonomia erkidegoek izan ditzaketan funtzio bakarrik exekutiboak direla, eta, gehienez jota, erregelamenduzkoak.

Nik ez dut horrela irizten. BJLOk, eskuduntzei buruzko legea izanik, esleia diezaieke autonomia erkidegoei gai zehatz bati buruzko eskuduntza, baina ez dut uste berari dagokion funtzio horiek araugintzako zein tresnaz baliatuz gauzatu behar diren zehaztea. Dekretuen bidez bakarrik? Eta zergatik ez lege autonomikoen bidez, ez baldin badiote legegile organikoak eskuduntzari eman dion erabilerrari eragiten?

## 6.

**Zein da zure iritzia Epaia honi dagokionez?**

Epaia aztertu dituen arazoak zeintzuk diren ikusi, eta nolabaiteko paradoxa soma daiteke berehala: 2000. urtean gaudela, Auzitegi Konstituzionalak oraindik ez da adostasunera iritsi Botere Judiziala zer den eta Justizia Administrazioa zer den esateko orduan. Ezta ere independentzia judizialaren printzipioa zer den eta nola berma daitekeen zehazterakoan.

Epaia honek, bestetik, denbora politikoaren (hau da, legegileak hartu duen denbora) eta denbora judizialaren (Auzitegiak ebazteko hartu duen denbora) arteko etena islatzen du. Zergatik egin dudan hausnarketa hau? Bada, Auzitegia epaia emateko nahiko bizkor aritu den arren —sei urte “bakarrik” eman ditu—, gauza asko aldatu dira bitarte horretan, eta, beraz, ez da harrizkoa 105/2000 Epaieko doktrina hipotekatuta egotea, bai Justizia Administrazioaren arloko gertakarien bilakaera normalagatik, bai arlo horri dagokion deszentralizazio prozesua sakondutzeagatik.

## 7.

**Zer esango zenuke Botu partikularrei buruz?**

Hasiera batean garrantzirik ez duela dirudien arren, baliteke Partidu Popularrak azken hauteskundeetan gehiengo absolutuz eskuratutako garaipenak “zerikusirik” izatea Botu partikularren esanahia eta hauetan jasotako adierazpenak azaltzeko. BJKOko epailetzako hamabi bokaleak izendatzeko sistemaren arazoaren inguruan —hori al da dagoen arazo bakarra?— Gobernuari BJLO aldatzeko zuzendutako mezu belatuak interpretatzeko modu bakarra da. Nolanahi ere, maiatzean Gobernu osatu zenetik sortutako

1. JIMÉNEZ ASENSIO, Rafael. Las complejidades de “un modelo”: poder judicial, administración de justicia y estado autonómico en el sistema constitucional español (Apuntes de urgencia en torno a la STC 105/2000). In: *Repertorio Aranzadi Tribunal Constitucional*, 7. zkia, 2000.

eszenatoki politikoa datu horiekin lotzean, erabat baldintzatzen da 105/2000 AKEren irakurketa: helegileek 1994ean BJLOan somatzen zituzten inkonstituzionaltasun arazoak jada ez dira arazo 2000. urtean.

## 8.

### **Zer dio Epaiak autonomia erkidegoko hizkuntza ofizial batean egindako ekintza judizial eta agiriei buruz epaileak daukan egitekoaz?**

Labur esateko, hiru ideiatan oinarritzen da Epaiak —interpretaziorako lekua ere uzten duena— BJLOko 231.4 artikulua ez dela inkonstituzionala esateko. Lehenik eta behin, zera dio Auzitegi Konstituzionalak (literalki): *“auzitan jarritako araua ikusita, ezin da esan —helegileek argudiatu bezala— gazteleraz gain beste hizkuntza ofizial propio bat daukan autonomia erkidegoren batean dauden organo judizialeko epaile eta magistratuek hizkuntza ofizial hori ezagutu behar dutenik<sup>2</sup>”*. Bigarren, *“autonomia erkidego bateko hizkuntza ofizial propioa ezagutzen ez duten organo judizialeko titularrek ezin dutela prozesuan eragina daukan idazki edo agiriren bat itzultzea ofizioz agindu esatea, Konstituzio espainiarreko 117.3 artikulua eskusibotasunez aitortzen dien ahalmen juridikzionala egikaritzea oztopatzearen parekoa litzateke<sup>3</sup>”*. Eta, azkenik, zera dio: *“Epaile eta magistratuen ahalmen juridikzionala erreserbatzearen helburua, Konstituzio espainiarrak 24.1 artikuluan jasotzen dituen babes judizial eraginkorrerako eskubidea eta babesgabezia eza denei bermatzea da. Hori dela-eta, organo eskumenduneko titullarrak ez badu ulertzen organo hori dagoen autonomia erkidegoan gazteleraz gain ofizialkidea den hizkuntza batean idatzitako agiriren bat, titullarrak eskubidea izango du itzul dadila agintzeko, baina ez hori bakarrik; izan ere, behartuta egongo baita hori egitera, dagokion funtzioa bete dezan. Hala egitea agintzen dio Konstituzio espainiarreko 53.1 artikuluko funtsezko eskubideen zuzeneko eraginkortasunak<sup>4</sup>”*.

## 9.

### **Auzitegi Gorenak, Justizia Administrazioaren antolaketa berregituratzeko proposamen bat kaleratu du agiri batean. Zeintzuk izango lirateke berregituraketa horren ildo nagusiak?**

Txosten horren muina, kasu honetan dagokigunerako, Auzitegi Gorenaren eskuduntzak birdefinitzera eta Justizia Auzitegi Nagusiak indartzera dago zuzenduta. Azken hauek kasazio helegiteak ebatzi beharko lituzkete, doktrina bateratzekoa izan ezik, honek Auzitegi Gorenaren esku jarraituko bailuke. Horrek guztiak eragin izugarria izango luke Botere Judizialak Espainian daukan antolaketan, eta argi dago onuragarria izango litzatekeela eremu askotan; besteak beste berandutzarik gabeko prozesua izateko eskubidean.

## 10.

### **Zuzenbide propiorik ez duten arloetako kasazio autonomikoak jurisprudenzia desberdina sor dezake autonomia erkidegoetan, Estatuaren eskuduntzakoak diren gaietan. Zein izango litzateke “Auzitegi Goren Zentralaren” egitekoa?**

Doktrina bateratzea, jakina. Ez zaie beldurrik izan behar Justizia Auzitegi Nagusien kontraesanezko pronuntziamentuei, zenbait arlotan orain bertan ere izaten baitira horrelakoak. Benetan axola duena,

2. *“Del tenor de la norma cuestionada no cabe inferir que se haya implantado la obligación —tal y como argumentaban los recurrentes— de que Jueces y Magistrados destinados en los órganos judiciales que tengan su sede en el territorio de alguna CA que tenga una lengua oficial propia distinta del castellano, deba conocer dicha lengua oficial”*.
3. *“Negar que los titulares de los órganos judiciales desconocedores del idioma oficial propio de una CA puedan ordenar de oficio la traducción de algún escrito o documento con incidencia procesal, sería tanto como impedirles ejecutar la potestad jurisdiccional que el artículo 117.3 CE les confiere en régimen de exclusividad”*.
4. *“El fin de la reserva de la potestad jurisdiccional que ostentan Jueces y Magistrados va dirigido a garantizar a todos el derecho a la tutela judicial efectiva sin indefensión que consagra el art. 24.1 CE, de ahí se deriva que si el titular del órgano jurisdiccional no comprende un documento redactado en una lengua distinta al castellano que sea cooficial en la CA en la que radica el dicho órgano, el titular no sólo está facultado para ordenar su traducción, sino que ha de considerarse obligado a ello para cumplir la función que le es propia. La eficacia directa de los derechos fundamentales, proclamada en el art. 53.1 CE, así lo impone”*.



Auzitegi Gorenaren jurisprudentzian kontraesanik ez egotea da, aurrekariak benetan funtzionatzea, eta doktrina aldatzen den bakoitzean argi uztea aldatzen ari dela, xehetasun guztiekin arrazonatuz.

## 11.

**Eratzekotan, zein eskuduntza izango lituzke “Botere Judizialaren Kontseilu Autonomiko” batek? Nola banatuko lituzke eskuduntzak Botere Judizialaren Kontseilu Orokorrekin?**

Ez dut uste “Botere Judizialaren Kontseilu Autonomikoak” eraginkorregiak izango liratekeenik; are gehiago, disfuntzionalak izango liratekeelakoan nago. Nire ustez, BJKOk oraindik ez du marko instituzionalean bere lekua aurkitu; konpondu gabeko arazoak dauzka bere egiturari dagokionez, bai osaketan, bai eskuduntzetan. Eredu hori eskala autonomikoan birsortzea, jarduteko orduan muga garrantzitsuak dauzkan organo bat hamazazpi aldiz biderkatzea litzateke. Ez zait iruditzen Justiziak dauzkan arazoen konponbidea hortik etorriko litzatekeenik.

## 12.

**Justizia Administrazioa demokratizatzea eta modernizatzea bi gauza desberdin dira. Jardunaldi hauetan zehar behin eta berriro azpimarratu da Justizia zerbitzu prestazionala dela. Zer egin beharko litzateke Justizia Administrazioa horretarantz bideratzeko?**

Justiziak funtzio prestazionala daukala azpimarratu, zalantzarik gabe. Gizarteko oso esparru garrantzitsuei eragiten dien zerbitzu publiko bat da, eta, zehatzago esanda, askatasuna eta jabetza bezalako ondasun konstituzionalei. Bistakoa dirudien arren, Justizia Administrazioa modernizatzeko funtsezkoa da “beste Administrazio bat gehiago” balitz bezala tratatzea. Hala ere, badira une oro kontuan hartu beharreko beste alderdi batzuk ere: bere berezitasunak, antolaketa guztia berdiseinatu —edo birpentsatu— beharra, pertsonalaren kudeaketan aldaketa garrantzitsuak sartzea, eta prozedurak nahiz beste hainbat gai erreformatzea.

## 13.

**Justizia Administrazioa demokratizatzeko asmoz, Epaimahaiaren Legea onartu zen. Beste zer egin beharko litzateke?**

Epaimahaiaren Legea Justiziaren demokratizazio prozesuko alderdi garrantzitsu bat da, zalantzarik gabe. “Demokratizazioa” —hitarrek Justizia Administrazioan eta Botere Judizialean “zuzenean” parte hartu ahal izatea bezala ulertuta— ez dago gure egungo sistema judizialean txertatuegia. Nolanahi ere, badago sakontzerik Justizia Administrazioaren funtzionamenduagatik erantzukizuna dela autonomia erkidegoei, dela BJKOri galdatzearen arloan.

## 14.

**Partidu Popularrak BJKOko kideen hautapena korporatibizatzea proposatzen du. Zer derizkiozu? Demokratizazioarekin bateragarria izango al litzateke?**

Ez zait iruditzen BJKOko hamabi kideak izendatzearen arazo “mediatikoa” arazoen artean handiena denik, ez eta garrantzitsuena ere. Batik bat gaizki aplikatzen delako da txarra egungo sistema, dialektika politikoa BJKOra daramalako. Ez dut uste hautaketa sistema korporatiboa ere irtenbidea



litzatekeenik, eta are gutxiago gehiengozko sistema jarraitzen baldin bada, itxuraz behintzat korrante judizial zehatz bateko magistratuak baino ez liratekeelako egongo BJKOn ordezkatura. Garrantzitsuena organoa eta bere funtzioak birdefinitzea da, erantzukizunak mugatzea, eta hautatzen diren pertsonen ongi ezagutzea BJKOk egun aztertzen dituen gaiak (epaileen hautaketa eta prestakuntza, karrera judizialaren kudeaketa, erantzukizun diziplinarioa, epaitegi eta auzitegien ikuskaritza, antolaketa judiziala, etab.). Eta proposaturiko pertsona hauek “iragazki” parlamentario batetik igaro daitezela; alegia, egokiak ote diren azter dadila.

## 15.

**Europar Batasuneko kide Estatuetakoa epaileak, Zuzenbide Komunitarioa aplikatzean, dagokien Estatuko epaileak izateaz gain, komunitarioak ere badira. Gune judizial europarra kontsolidatzean dagoen errealitatea dela esan genezake. Ezer egin al lezake Europar Batasunak bere baitako Estatu bateko Justizia deszentralizatzen?**

Sistema komunitarioa, “autonomia instituzionalaren” printzipioan oinarritzen da. Europa komunitarioan egitura estatal zentralizatuak eta deszentralizatuak elkarbizi dira —azken hauek izanik, gainera, urriak—. Ez dut uste Europa komunitarioa Botere Judiziala “autonomizatzen” pizgarri bat denik. Beste gauza bat da integrazio europarraren prozesua Estatu-nazio tradizionalaren funtsezko zenbait printzipiori eragiten aritzea; hala nola, Botere Judizialari. Prozesu honek Botere Judizialari ere eragingo dio, baina ez gehiago deszentralizatzearen zentzuan, baizik eta jarduteko ildoak bateratu eta bere ohiko funtzioak aldatzeko.

Elkarrizketatzailea: Itziar Alkorta  
Itzultzailea: Koro Garmendia

Emilio OLABARRIA MUÑOZ

Botere Judizialeko Kontseilu Orokorreko kidea



## 1.

**Botere Judizialeko Kontseilu Orokorrak (BJKO) oinarritzat Konstituzioko 152. artikulua hartuz luzatutako proposamenaren arabera, kasazioa autonomia erkidegoetako Justizia Auzitegi Nagusietan agortuko litzateke, Auzitegi Gorena doktrina bateratzera mugatuz. Nola gauzatuko litzateke kasazio autonomikoa autonomia erkidegoek Zuzenbide propiorik ez daukaten arloetan? Eta nola funtzionatuko luke Auzitegi Gorenaren aurrean doktrina bateratzeko helegiteak?**

BJKOn proposamena, Kasazio arrunteko helegite guztiak ezagutzeko eskuduntza autonomia erkidegoetako Justizia Auzitegi Nagusiei esleitzean datza; berdin du aplikatu beharreko Zuzenbidea estatala edo autonomikoa den. Auzitegi Gorenari doktrina bateratzeko kasazio helegiteak ebaztea esleitzen zaio, hor ere ez duelarik axola zein Zuzenbide aplikatu behar den: estatala edo autonomikoa. Doktrina bateratzeko Kasazio helegiteari esker, ekidin egingo lirateke Kasazio autonomikotik eratorritako supostuak zehazteari buruzko epai kontrajarriak.

## 2.

**Txosten horren arabera, autonomia erkidegoetako administrazioko ordezkariak hornitutako batzorde gisa arituko lirateke Justizia Auzitegi Nagusietako Gobernu Aretoak. Botere Judizialaren Kontseilu Autonomikoen modukoak izango al lirateke?**

Justizia Auzitegi Nagusietako Gobernu Aretoen osaketari dagokionez, ez dugu autonomia erkidegoetako Gobernuko kideen presentzia aurreikusi; aldiz, bai Justizia Auzitegi Nagusia dagoen lurraldeko Zuzenbidearen profesionalena, epaile eta magistratuei eskusiboki ez dagozkien zenbait eskuduntza, baina Justiziaren Administrazioari oro har badagozkienak, egikari ditzaten.

## 3.

**Zein izango litzateke batzorde berrien osaketa?**

Honako hauek osatuko litzukete Gobernu Aretoak: gaur egun dauden magistratuek, eta dagokien Elkargo Profesionalek izendatutako Zuzenbideko profesional batzuek, legegileak finkatu beharreko kopuruan.

## 4.

**Nola eragingo lioke eskema honi BJKOeko kideen hautaketa modua aldatzeari buruzko Gobernuaren lege proiektuak, zeinaren arabera Parlamentuak ez bailukeen kiderik hautatuko?**

Ez dugu ezagutzen gaur egun BJKOeko bokalak izendatzeko dagoen sistemarekiko —hots, guztiak Parlamentuak izendatzen dituela— desberdina den besterik ezartzen duen inolako lege proiekturik.

## 5.

**Zeintzuk izango lirateke bere eskuduntza berriak? Lehiaketa eta oposiziorik egingo al litzateke hutsik leudekeen postuak betetzeko?**

Asko deskonzentratu beharko lirateke BJKOren eskuduntzak, autonomia erkidegoetako Justizia Auzitegi Nagusietako Aretoek dauzkatenak indartzeko. Gaur egun Justizia Ministerioaren esku dauden ia eskuduntza guztiak izan beharko lukete eskuduntza horiek: organu judizial berrien eraketa, idazkari judizialak, plaza berrien zehaztapena, organu judizialen funtzionamendurako aurrekontuaren finkapena, hutsik dauden postuak hornitzeko lehiaketak, zerbitzuen komisioak, eta abar.

## 6.

**Batzorde horrek izango al luke hautagaien ukanbeharrak zehazteko eskuduntzarik? Esaterako, ezar al lezake EAEn epaile edo magistratu izateko euskara ezagutu behar izatearen baldintza?**

Gaur egungo legeriak ez du euskararen ezagutza plaza judizial batzuetara jotzeko betebeharren artean sartzen; meritu gisa aurreikusten du. Justiziaren arloan, oraindik ere konpontzeke dago hizkuntza ofizialkideen arazoa. Euskararen erabilera normalizatzeko ekimen garrantzitsuak gauzatzen ari diren arren (euskara eta Zuzenbide Zibil propioa ezagutzea meritu gisa aintzatesten dituen erregelamendua, euskara maila desberdinetan ikasi ahal izateko BJKOk eta Eusko Jaurlaritzak sinatutako lankidetzak hitzarmena, eta abar), oraindik ez da atzean dirauen arazoa konpondu: auzipetuei, Justiziaren Administrazioan edozein hizkuntza ofizial erabiltzeko eskubidea aitortzea.



## 7.

### **Autonomia erkidego guztietan ala batzuetan bakarrik egin beharko litzateke aldaketa hori?**

Gaia benetan konplexua da. Oso desberdinak dira Autonomia Estatutuek Justiziaren eskuduntzari buruz jasotzen dituzten aurreikuspenak, baina praktikan autonomia erkidego guztien eskuduntzak bateratzeko prozesu bat hasi da. Ez da eratorri ez “konstituzionaltasun bloketik”, ez Autonomia Estatutu bakan batzuek dauzkaten klausula subrogatorioetatik, ez autonomia erkidego batzuetan dauden sentimendu edo eskari autogobernuzaleetatik ere. Ez Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudentzia (56/90 Epaia bereziki), ez sustatzen ari den eskuduntzen bateratasuna ere, ez datoz euskaldunek daukaten eta Justizia Administrazioa ere zabal daitekeen autogobernurako nahiarekin bat. Oraindik asko falta da Justiziaren zerbitzu publikoa unitarioa ez, baizik eta konposatua den Estatu baten eskakizunetara egokitzeko, eta autogobernurako nahia, eskubide historikoak edo autodeterminazio eskubidea bezalako tresnen eskakizunetara.

## 8.

### **Zein aukera politiko ikusten dituzu proposamen hori legegintzaldi honetan onartzeko?**

Partidu Popularrak Parlamentuan gehiengo absolutua daukala, eta alderdi honek Justiziaren erreformari buruz luzatu dituen proposamenak ezagututa, ezin da espainiar Estatuko Justiziaren Administrazioari dagokionez egiturazko aldaketa handiegirik espero.

## 9.

### **Beste zein proposamen etor liteke BJKOren eskutik Justiziaren Administrazioa berritu eta deszentralizatzen?**

BJKOk Justizia erreformatzeko 122 proposamen aurkeztuko dizkio gizarteari. Proposamen hauetako batzuk joera autonomista garbia daukate (autonomia erkidegoetako Justizia Auzitegi Nagusien eskuduntzak indartzea, hauetako Gobernu Aretoen eskuduntzak indartzea, Justiziaren zerbitzura lanean ari direnek Gorputz Nazionalakoak izateari uztea, autonomia erkidegoen eskuduntzak handitzea). Beste proposamen batzuek Justiziaren zerbitzu publikoaren efizientzia hobetu nahi dute (bulego judizialaren egitura, gatazkak konpontzeko judizios kanpoko formulak, erreforma prozesalak, planta judizialaren egokitzapena, Justizia interino eta bakezkoaren egitura berria, gertuko Justizia). Proposamen hauek nahiz Auzitegi Gorenak luzatutakoaren modukoak Justizia erreformatuko duen benetako Estatuko Itun bat sortzeko lagungarri izango direla itxaro dugu.

## 10.

### **Entzutegi Nazionalaren desagerpenaz hitz egin da. Bideragarria al derizkiozu hipotesi horri, ETAren su etena bertan behera gelditu denean?**

Kontuan izan behar da Entzutegi Nazionalan ez dagoela Penaleko Aretoa bakarrik; hortxe daude Administrazioarekiko Auzien Aretoa eta Soziala ere. Eta, halaber, gogoan izan behar da Penaleko Aretoak ez dituela terrorismoko delituak soilik epaitzen, baizik eta baita bere eskuduntzakoak diren beste batzuk ere: zenbait delitu ekonomiko, monetario, gauzen salneurriaren aldaketa, Koroaren aurkako delituak, estradizio pasiboa, narkotrafikoa eta abar. Konplexua da Entzutegi Nazionalari buruzko eztabaida, bi printzipio konstituzional baitaude jokoan: Legeak alde aurretik zehaztutako epaile naturalerako eskubidea, eta zenbait delituren tipologiatik eratorritako konplexutasunagatik auzitegi espezializatuek epaitu beharra. Entzutegi Nazionala desagertu edo ez desagertzearen erabakiak ez du ETAren su etena bertan behera gelditu izanean oinarritu behar. BJKOk erreformarako egindako proposamenen artean, halere, Entzutegiko Penaleko Aretoa desagertzea dadila aipatzen da. Doktrina, nolana ere, eta dakizuen bezala, zatikatuta dago puntu honi dagokionez.

Elkarrizketatzailea: Itziar Alkorta  
Itzultzailea: Koro Garmendia